

293. alea - 2024ko martxoa  
Debako herri aldizkaria

Zuh<sup>er</sup>tz<sup>a</sup>  
M<sup>u</sup>z<sup>u</sup> de<sup>ba</sup> euskara  
elkar<sup>te</sup>a

# Berriketan

TASIO FERNANDEZ-QUEJO • Sukaldaria

# Lapiko eta plater artean hazi eta hezitako sukaldaria



## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com  
Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

 [www.facebook.com/adatsileak](http://www.facebook.com/adatsileak)  
 @adatsileak



URDAITEGIA  
**AITTOLA**  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# Urlo

Aholkularitza  
Komunitateen  
kudeaketa  
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • [urlo@urloasesoria.eus](mailto:urlo@urloasesoria.eus)  
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



*Janire & Maitane*  
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

## Zumardi

pentsioa

\* \*

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)



## ARENA BAR

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

# ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba



## LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

Maitena Arrizabalaga Deba  
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

# maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3°esk, Zarautz



## Argazkilaria

Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
photoshop-eko erretokeak...)

[andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)  
Tel: 685 703 843



# BERRIKETAN 293

2024ko martxo

**Azaleko irudiaren egilea:**  
Nerea Bedialauneta Alkorta


## AURKIBIDEA



**8 ALBISTEAK**  
Itziariko Gazte  
Asanbladak antolatuta,  
giro onean ospatu dute  
Kardantxulo Eguna



**11 ERREPORTAJEA**  
Debadezine Zine Klub  
Elkartea sortu  
zenetik gaur arteko  
ibildibidearen errepasoa



**14 ALBISTEAK**  
'Berriketán.eus' atari  
digitaleko Komunitatea  
atalean parte hartzeko  
gonbidapen irekia



**21 ALBISTEAK**  
34. Lilatoiko bigarren  
talde handienaren  
saria jaso du  
Debako Gaztelekuak



**22 ARGAZKI GALERIA**  
Hona hemen Korrika  
Kulturalak eta  
23. Korrikak gurean  
lagatako irudi sorta



**28 AGENDA**  
Datozen asteotan  
egingo diren jarduerak  
eta ekimenak jaso  
ditugu atal honetan

**Zuhatzza** euskara  
elkartea

**Berriketán**

**ARGITARATZAILEA**  
Zuhatzza Euskara Elkarte  
**HELBIDEA**  
Iifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)  
**TELEFONOAK**  
943 19 13 83 / 632 04 33 22  
**HEDABIDEAREN E-MAILA**  
berriketán@zuhatzza.com  
**ELKARTEAREN E-MAILA**  
koordinatzailea@zuhatzza.com  
**ERREDAKZIOA**  
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta  
eta Alex Turrillas  
**KOORDINATZAILEA**  
Izaro Aulestiarte

**PUBLIZITATEA**  
Joseba Escudero eta Alex Turrillas  
**LOGOTIPOAREN DISEINUA**  
Iñaki Elosua  
**MAKETAZIOA**  
Maku Oruezabal  
**TIRADA**  
1.400 ale  
**MAIZTASUNA**  
Hilabetekaria  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**LEGE GORDAILUA**  
SS/246/200  
ISSN: 2171-7656

### LAGUNTZAILEAK



DEBAKO MEDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Oharra:

Berriketán-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketán@zuhatzza.com](mailto:berriketán@zuhatzza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak



## Martxan da Altxa burua Deba-Itziar Taldea

Altxa burua Deba-Itziar Taldea sortu berri dugu, Altxa-burua Gipuzkoa Taldearen baitan, eta horren berri emateko eta taldea ezagutarazteko baliatu nahiko genuke gutun hau. Gure helburuak hauek dira: batetik, haurrek sakelako telefono adimenduna ahalik eta beranduen eskuratzea, eta, bestetik, sakelako telefono adimendunen eta pantailen erabilera kontzientea sustatzea.

Aipatutako helburuak lortzeko, aurrerantzean eskolarekin, guraso elkarteekin, udalarekin eta herriko beste eragile batzuekin elkarlanean arituko gara ekintza desberdinak antolatzen. Miren Ros aditua bidelagun izanda, adibidez, herritarrentzako sentsibilizazio hitzaldi eta solasaldi desberdinak egingo ditugu, haurren adinari egokituta: pantailen erabilerari buruzko hausnarketa egin, eta mugikorren, Interneten eta sare sozialen arriskuei buruz arituko da hezitzailea.

Era berean, Luzaro ikastetxeko LH4ko haurrek hainbat saio egingo dituzte Miren Rosekin eta, saioen ostean, gazteek landutakoari buruzko informazioa edota ondorioak jasoko dituzte haien gurasoek. Halaber, aurten eta hurrengo hiru ikasturteetan egingo diren hitzaldiak eta formakuntza saioak udalak ekonomikoki babestuko dituela adostu dugu.

Aurrerantzean ere joango gara taldearen ekimenen berri ematen. Laster arte!

**Altxa burua Deba-Itziar Taldea**

## Hezitzaileak eta begiraleak behar ditugu

Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldean hezitzaile eta begirale euskaldunen lan poltsa osatzen ari gara, datozen hilabeteotan sor daitezkeen beharrak asetzeko helburuz. Beraz, aisialdiko ekintzetan gurekin begirale lanetan jarduteko prest baldin bazaude, ez izan zalantzarik eta batu gure taldera, birritan pentsatu gabe!

Deialdian honakoa eskatzen da: hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea, eta ahozko euskara maila altua izatea. Bestalde, kontuan hartuko dira begirale ikastaroa euskaraz egin izana, aisialdian lan-eskarmentua izatea, hezkuntza-premia berezietako ikasketak izatea, Zuhatzako bazkide izatea, eta Debakoa edo Itziarkoa izatea.

Lan poltsan izena emateko eta curriculuma bidaltzeko epea apirilaren 28an amaituko da. Beraz, adi ibili! Informazio gehiago behar izanez gero, [berriketan.eus/koloreanitz](http://berriketan.eus/koloreanitz) esteka erabili dezakezue.

**Zuhatza-Kolore Anitz**





MAITE RODRIGUEZ

## Elorri magikoak

Ohitura zaharrak mantentzen dituzte oraindik ere Irlandan. Gure inguruan bizi diren sidheak (iratxo edo inguma moduko izakiak) pozik mantentzea, edo ez haserretzea behintzat, ohitura askoren helburu bakarra da. Sidheek, haserretzean, madarikazioak eta ezbeharrak ekartzen dizkiote haserre horren eragileari. Gauzez ura kanpora botatzerakoan, adibidez, oihuka abisatzen zaie, nahi gabe ez bustitzeko.

Sidheak elorrien inguruan batzen dira, eta euren mundurako pasabideak ere elorrietan daude. Horregatik, elorri batzuk sakratuak dira, bakarka hazten direnak batez ere, eta beste batzuk, aldiz, magikoak. Elorri gehienak zuhaitz arruntak dira, ordea.

Elorri magikoak iturri ondoan hazten dira eta sendatzeko ahalmena omen daukate; gaixoaren arroparen zati bat moztu eta zuhaitzera lotuz gero, oihala usteldu ahala gaixotasuna ere makaltzen ei da. Sakratuena, ordea, zelai baten erdian harriz inguratua hazten den elorria da. Baserritarrak kontu handiz egingo ditu lanak inguruan, sidheei trabarik egin gabe.

Ez dira aspaldiko kontuak bakarrik. 1999an, Limerick eta Galway arteko errepide berria desbideratu zuten, herritarrek hala eskatuta, elorri sakratua mozteko beldurrez. Hamar urtez atzeratu zituzten lanak.

1980an, Belfast inguruan, DeLorean auto fabrika eraiki behar zen lekuan ere bazen elorri sakratu bat. Langileek hura mozteari uko egin zioten eta jabeak berak bota zuen elorria, bulldozerrarekin. 1982rako porrot egin zuen konpainiak, eta askok zuhaitza moztu izanari leporatzen diote porrota.

Ez dut oso ondo ulertzen zer diren sidheak, baina kontuz ibili behar badaezpada... Gainera, zuhaitzak ez mozteko edozein arrazoi da ona!

**"Ez dut oso ondo ulertzen zer diren sidheak, baina kontuz ibili behar badaezpada... Gainera, zuhaitzak ez mozteko edozein arrazoi da ona!"**

LIZ.-ZK.: 3

**Taxi Alain Deba**

WiFi

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

**www.taxideba.eus**

**MAIEDER**  
hortz klinika

Eider Sampayo  
Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia  
Periodontzia · Endodontzia  
Estetika eta zuriketak  
Protesiak · Odontopediatria  
Azido hialuronikoa  
Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

**Zarautz**  
Kale Nagusia 9-1  
943 13 32 69  
722 81 56 60  
dental@maieder.com  
www.maieder.com

# Zergatik da ukiezin Israel palestinarren aurkako genozidioan?

DEBA-PALESTINA HERRI EKIMENA

**S**egurtasun-industriari eta industria militarri dagokionean Israeliek mendebaldearekiko duen mendekotasunak Palestinako genozidioaren aldeko lankide eta konplize bihurtu gaitu.

Europako inteligentzia eta arlo militarreko zerbitzuetako asko Israelekin zuzenean lotuta daude. Espainian, Israelgo enpresa militarrek eta segurtasun-enpresek produktuak eta zerbitzuak ematen dizkiete Estatuko indar armatuei eta segurtasun-indarrei, baita Ertzaintzari eta Mossos d'Esquadrari ere. Zaintza-zerbitzuak dituzten portu, aireportu eta azpiegitura kritiko asko enpresa israeldarrek hornitzen dituzte. Izan gogoan Pegasus auzia.

Palestinako lurralde okupatuetan probatutako eta *etiketarekin* iragarritako arma israeldarrak erabiltzen ditu Espainiako armadak. Gainera, enpresa espainiarren filial edo partzuergoen bitartez, Israelgo industria militarrek era guztietako hornidura- edo mantentze-kontratuak egiten ditu Espainiako enpresekin.

## Babes politikoaren eta diplomatikoaren garrantzia

Israelentzat ezinbestekoa da laguntza militarra, batez ere AEBetako eta Alemaniako, eta jasotzen duen babesik garrantzitsuena politiko eta diplomatikoa da: pribilegioak ematen dizkiote, kritikak isilarazten dituzte, ez diote eskatzen armamentuaren kontrolari eta erabilerari buruzko nazioarteko akordio bat bera ere berrestea, eta NBERen Segurtasun Kontseilua erabiltzen dute kondenei betoa jartzeko eta Nazio Batuen Erakundearen aginduak ez betetzeko. Horrez gain, Israeli Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiaren ebazpenak ez betetzeko babesa ematen dioten herrialde horiek berak dira (AEB eta Alemania, esate baterako) UNRWARI laguntza emateari uko egin diotenak. Horrela gazatarrak gosez eta gaixotasunez heriotzara eramanez.

Israel, AEB eta EBren arteko interes komertzialak ikaragarriak dira. CAF, Carrefour eta Cardumen Capital lagin bat baino ez dira Euskal Herrian. Cardumen Capital III-k doitasunezko nekazaritzan,



**"Genozidioaren konplize gara eta, Nazio Batuek eta Europako herrialde gutxi batzuek kritikatu badute ere, inork ez du Israel zigortzen"**

bioestimulatzailetan, 4.0 nekazaritzan eta proteina alternatiboetan inbertituko du Israelgo goi mailako teknologia, Basque Culinary Centerrekin lankidetzan.

Israeliek bere enpresa guztiak, militarrek eta segurtasunekoak, eta bere lobby-ak erabiltzen ditu kontrol tresna gisa, genozidio baten aurrean ere bere aurkako kritikak galaraziz.

Israeliek kritika guztiekiko duen oldarkortasunak (izan NBERen idazkari nagusiarenak, edozein presidenterenak, unibertsitateko errektoreenak edo aktoreenak...) nazioarteko komunitatean autozentsura eragitea bilatzen du, kritikak egiten dizkionak ederki ordainduko duela ohartaraziz. Hartara, AEBetako, Frantziako, Erresuma Batuko edo Alemaniako gobernuek antisemitismoztat jotzen dituzte Israelgo Estatuaren aurkako kritikak, eta Palestinako banderak debekatu egin dituzte; Nazio Batuetan, berriz, 2019az geroztik, bertako 193 estatuetatik 139k eta kide ez diren bi estatuk Palestinako Estatua onartzen eta aitortzen dute.

Gakoa: Israel AEBetako eta EBko plataforma bat da Ekialde Hurbilean, petrolio-eskualde hori kontrolatzeko, eta zigorrik gabe geratzen dira bere krimenak.

Genozidioaren konplize gara eta, Nazio Batuek eta Europako herrialde gutxi batzuek kritikatu badute ere, inork ez du Israel zigortzen.



MANEX ASTIGARRAGA

## Desokupatuak

Hasiera batean Desokupa bezalako enpresak langabetuei lana bilatzeko lekuak zirela uste nuen. Desokupatuei, alegia. Zentzua zeukan. Izan ere, guztiok dakigun bezala, tatuajeak bistan eramateak lana lortzea zailtzen du. Batez ere, tatuaje naziak badira. Agian, nire hasierako ustea zuzen dezakegu nazi langabetuei lana emateko modu bat dela esanez. Bide batez, jabetzan etxerik ez dutenei bizitokia kenduz.

Okupen gaia eztabaida publikoan txertatu du komunikabideen agendak. Kurioso da ikustea norbait nola larritu daitekeen ez daukan etxe horretan baten bat sartuko ote den beldurrez. Zertarako horrenbeste zalaparta? Ba... alarma sistemak saltzeko. Eta beno, agian, bizitokia ordaintzeko lain ez dutenen etxegabetzeak jendaurrean zurrizteko ere bai. Zeren batzuetan ahaztu egiten zaigu (okupatuko diguten etxerik ez daukagula ahazten zaigun bezala) bizi diren etxea edo horren alokairua ordaindu ezin duten familienak direla etxegabetze gehienak. Karikaturetatik urrun, etxegabetuen bi heren lanean ari zirela etxegabetuak izan zirenean. Agian, bihar, geu izan gintezkeela.

Ahoa ignorantziak eta jabe ideologiaren ikuspegi kriminalaz betetzen zaigun bitartean, baliteke, ez oso urruti, etxegabetua izateko arriskuan dagoen pertsona bat edo beste egotea. Okupa baino etxegabe eta etxegabetu gehiago baitago. "Okupaziorik ez! Etxegabetzeak bai!". Horixe dio moralak. Horixe dio legeak. Aurkakoa saldu nahi badigute ere. Errealitatea tematia da, ordea. Eta... errealitateaz ari garela, akaso, geuk ere desjabetutik gehiago daukagu jabetik baino.

**"Okupaziorik ez!  
Etxegabetzeak bai!  
Horixe dio moralak.  
Horixe dio legeak.  
Aurkakoa saldu  
nahi badigute ere.  
Errealitatea tematia  
da, ordea"**



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

* Fisioterapia - Osteopatia	* Podologia
* Gimnasia hipopresiboak	* Dietista

Lersundi, 14
943 19 24 42
sasoiko@hotmail.com



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

# Umore eta giro onean ospatu dute beste behin ere Itziarko Kardantxulo Eguna



Itziarko Gazte Asanbladaren ekimenez, Kardantxulo Eguna ospatu zuten joan den martxoaren 16an. Eguraldia lagun, udaberri giroan gozatu zuten "hainbeste desiratutako mozorro egunaz".

Balorazio positiboa egin dute antolatzaileek, eta pozik agertu dira hitzorduak izan duen harrerarekin eta egun horren bueltan Itziarren sortutako giroarekin. "Egitarau xumea prestatu genuen arren, herritarrek erantzun ederra eman zioten deialdiari. Inguruko herrietatik ere gerturatu zen jendea; debar asko ikusi genituen gure artean, bai oholtza gainean, bai txosnako barraren kanpoaldean. Egia esan, eguraldiaren, auzo udalaren eta herritarren laguntzarekin, egun zoragarria pasa genuen azkenean. Sarritan ez dugu askorik behar lagunartean egun polit bat pasatzeko".

## Ordu txikiak arte

Egitarauari dagokionean, jai giroa eta umore ona izan ziren nagusi egun osoan. 10:00etan plazan elkartu eta mendi irteerarekin eman zioten hasiera egunari, eta ondorengo orduetan musikaz girotutako *karropoteoa*,

Zabalsoro frontoian egindako bazkari herrikoia, bingo musikatua... izan zituzten aukeran. Elektrotxufla taldea aritu zen gero kalez kale, eta Debako Ñozz musika taldeak kontzertua eman zuen gauean, festa ordu txikitan amaituz.

Ohituri eutsiz, oraingoan ere ez zen mozorrorik eta irudimenik falta izan Itziarren, eta herritarrek umorez eta kolorez jantzi zuten berriz ere Kardantxulo Eguna. Mozorrotzeko gai ezberdinak proposatzen dituzte urtero eta aurtengo deialdian baratzea izan da gaia. Antolatzaileen esanetan, bizilagun batzuek mozorro originalak prestatu zituzten; tartean ziren, adibidez, negutegian hazten ari den tomatea edota protesta egitera doazen traktoreak.

## "Zalantza asko bidean"

Egunak emandakoarekin pozik egon arren, asanbladako kideek azaldu dute aurtengo hitzordua "apur bat ezberdina" izan dela antolaketa lanei dagokienean. Are gehiago, diotenez, "zalantza asko izan ditugu bidean. Izan ere, ez da erraza izan eguna aurrera ateratzea".

"Iaz *zentrua* goitik behera bota zuten, eta bertan parranda gehiago ezingo genuela egin esan ziguten. Hori gutxi ez balitz bezala, aurreko urteetan ospakizunerako karpa handia jarri izan dugu herriko plazan, baina aurten ez dagoela erabilgarri ikusi dugu. Eta ez ahaztu herriko taberna ere itxita dagoela orain momentuan. Egoera ikusita, asanbladako kideok larritasun sentimendua besterik ez geneukan", aitortu dute gazteek. "Hala ere, indarrak batu eta lortu genuen tunel amaierako argi izpi bat ikustea! Beraz, gogor ekin genion eguna antolatzeari". Oztopoak oztopo, lortu dute helburua. Eta gustura daude emaitzarekin.

Informatika  
Tresneria  
informatikoa



Elektronika  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**atari**  
INMOBILIARIA

943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**ieraenea**  
ekodenda

"maile ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)



**marruecos**  
viajes y tours

Neurrira egindako  
bidaia Marokora  
**607 76 11 46**  
[www.viajesytoursmarruecos.com](http://www.viajesytoursmarruecos.com)





NAHIA EGUSKIZAGA

## Udalerrri garbiago eta berdeago baten alde

“Natura hiltzen ari da. Zientzialariek ohartarazi dutenez, inoiz baino abiada azkarragoan”, idazten zuen Gorka Berasategi Otamendik *Berria* egunkarian ([www.labur.eus/berriaeuropakoparlamentua](http://www.labur.eus/berriaeuropakoparlamentua)).

Burura etorri zait DUT taldearen *Ahuntzaren gauerdiko eztula* kanta. Honela dio: “Gizakia zer da? Tximino erotua, jainkoen hautetsia ala ahuntzaren gauerdiko eztula? Bere txikitasuna onartzen ez duen umezurtz harroputza. Bere animalitasuna ukatzen duen galipotakumea. Bere egiaren absolutismoan, naturaren zaintzaile bakarra izendatzen da, bera naturaren parte izango ez balitz bezala. Zaborra sortzen duen animala bakarra, animala errazionala, baina esaidazu egunean zehar zenbat denboraz?”.

Galderaren ostean, txistu egiten du abeslariak, iritsiko ez den erantzunaren esperoan kilkerak entzun ohi diren bezala. Eta jarraitzen du: “Lurra iraintzen duenak bere burua iraintzen du. Espazioan dabil leku baten bila dagoeneko bere hilobiaren apaingarriak ez bait ditu gustukoak, baliabide naturalei bizkarra emanez beharrak sortzen ditu etengabe, izatea edukiaren arabera neurtzera iritsi arte; eta hobe genduke ba onartzen hastea naturaren baitan gaudela, erosotasuna eta indiferentziak lortu bait dute gu denak lokartzea”.

Zein kanta ederra, hor nonbait gordeta neukan, baina ahaztuta. Jaten ari nintzen platanoaren azala zakarrontzira botatzera joan naiz, eta horiaren eta grisaren artean ezin aukeratuta ibili naiz. Non dago zaborrontzi marroia?

**"Jaten ari nintzen platanoaren azala zakarrontzira botatzera joan naiz, eta horiaren eta grisaren artean ezin aukeratuta ibili naiz. Non dago zaborrontzi marroia?"**



ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



## 1949ko uztailaren 25a

# Aizkolaria Euskal Jolasen

Indalecio Ojangurenak 1949ko uztailaren 25ean Debako Euskal Jolas frontoian egindako argazkiak oso ondo erakusten du herri-kirolek garai hartan zuten indarra. Ordutik 75 urte igaro dira. Egun hartan apustu interesgarria egin zen (orduko 50.000 pezeta, dirutza bat): Juan Jose Narbaiza, *Luvia* azkoitiarrak 120 minutuan moztu behar zuen Airoko pagoa (Airoko pague), Euskal Herriko pagorik altuenetakoa (475 zentimetroko zirkunferentzia zuen). Erronka onartu zuen arren, *Luxiak* ezin izan zuen moztu; bero itogarriaren ondorioz, proba bertan behera utzi behar izan zuen, amaitzeko hamabi minuturen faltan, eta apustua galdu zuen. Astebete zen bere aurkariak —Antonio Soraluze, *Corta* azkoitiarrak— Markinan antzeko beste zuhaitz bat moztea lortu zuela, baina hura pixka bat txikiagoa zen (430 cm-ko zirkunferentzia zuen).

Alex Turrillas Aranzeta



## Bidali argazki zaharrak!

Animatu zaitetz etxean gordeta dituzun argazki zahar eta esanguratsu horiek hartu, bertan agertzen denari buruzko azalpen testu motz bat idatzi eta informazioa *Berriketan*-en partekatzera!

✉ [berriketan@berriketan.eus](mailto:berriketan@berriketan.eus)



# Sei urte zinemarekiko zaletasuna hauspotzen

Herriko zinema aretoa aspaldi itxi bazuten ere, arte horren "magiaz eta xarmaz" taldean gozatzeko proposamena dakar igandero Debadezine Zine Klub Elkarteak. Taldeko kideek filmak ikustea dute gustukoan, eta afizio hori partekatzeke helburuz ekin zioten proiektuari 2017an. Harrezkero, ehunka pelikula proiektatu dituzte Kultur Elkartearen, herrian zinemarekiko zaletasuna sustatuz.



**B**este hainbat zineklubek bezala, Debadezinek ere herriko zenbait zinemazale amorraturen pasioak bultzatuta ekin zion bere bideari. 2017ko hitzordu informal baten bueltan hasi zen dena egosten. "Zinema sustatzeko proiekturen bat abian jartzea interesatzen zitzaiela komentatu zigun Kultur Elkarteko ezagun batek. Herriko zinema aretoa itxi zutenetik, egia esan, Deban ez zegoen halako eskaintzarik helduentzako. Beraz, ideia ona iruditu zitzaigun ezagun hark proposatutako proiektua martxan jartzea".

Esan eta egin. Handik gutxira, afari hartan aipatutakoari forma ematen hasteko bilera bat antolatu zuen Kultur Elkarteak eta, interesa zuten herritarrak egitasmora batu ondoren, antolatzen hasi ziren. "Sei bat lagun bildu ginen, eta esku artean geneukan proiektuari elkarte izaera ematen hasi ginen. Izan ere, jarduerak antolatzen hasi ahal izateko, beharrezkoa zen izaera juridiko propioko elkarte gisa erregistratuta egotea".

2017. urtearen amaieran eratu zuten elkarte eta, azaldu dutenez, pelikulak proiektatu ahal izateko lizentzia lortzea izan zen hurrengo urratsa. Merkatua aztertzen aritu ondoren, Europa mailako Umbrella hornitzailearen lizentziapean jardutea erabaki zuten. Lizentzia hori erabiltzean, dena den, bestelako baldintza edo arau batzuk betetzera derrigortuta dago elkarteak.



Ezkerretik eskuinera, Mila Idiakez, Marian Garcia, Begoña Tello eta Patxi Lopez Debadezineko kideak, Kultur Elkarteko areto nagusian.

"Ekoiztetxe jakin batzuen filmak baino ezin ditugu aukeratu. Horrez gain, emanaldietan ezin dugu sarrerarik kobratu, eta proiektatuko ditugun pelikulen promoziorik ere ezin dugu egin", argitu dute.

Bete beharreko baldintza horiek zehaztu ondoren hasi ziren lanean elkartearen. Hasiera batean, hileroko helduentzako bi emanaldi antolatzea adostu zuten, baina hasi eta gutxira erabaki zuten hitzordu horiek

**“Film berrienak eta onenak eskaintzen saiatzen gara, baina batez ere ikus-entzunezkoak lantzen duen gaiari erreparatzen diogu”**

astero eskaintzea. Orduz geroztik, Kultur Elkarteko areto nagusian zinema doan ikusteko aukera izaten da igandero, 19:00etatik aurrera. "Denboraldia irailaren erdialdean hasi eta ekainean, San Juanen bueltan, amaitzen da. Udan atsedenaldira hartzen dugu, baita Gabonetan eta Aste Santuan ere".

Debadezineko kideen esanetan, "giro polita" sortzen da asteroko proiektioetan. "Gure ustez, hitzordu hauek jendea sozializatzeko aukera ematen dute. Badakigu, adibidez, batzuk zerbait hartzeko geratzen direla emanaldien aurretik, eta beste asko saioa amaitzean ere geratzen dira, filma zer iruditu zaien lasai eta patxadaz komentatzeko".

#### **Programazio aberatsa**

Programazioari dagokionean, hiru hilabeteko aurreikuspenarekin hautatzen dute igande bakoitzean emango duten pelikula. Eta, aitortu

dutenez, aukeraketa egitea ez da batere erraza izaten, batez ere urtean ekoiztako film kopuru handia kontuan izanda. "Gutako bi zinemazale amorratuak dira eta, adostu ditugun irizpideak kontuan hartuta, eurak arduratzen dira, hein handi batean, programazioa osatzeaz. Gainera, ahal dugunean, publikoarentzat interesgarriak diren proposamenak ere aintzat hartzen saiatzen gara".

Azpimarratu dutenez, elkarteak ez ditu pelikula komertzialak bakarrik aukeratu; eskaintza harago doa. "Merkatuan dauden film berrienak eta onenak eskaintzen saiatzen gara, baina batez ere ikus-entzunezkoak lantzen duen gaiari erreparatzen diogu". Horiek hala, gaurkotasan handiko gai sozial, politiko edota historikoak jorratzen dituzten lanak izaten dira ikusgai emanaldietan. Gainera, taldekideen jarduna ez da mugatzen soilik proiektioak



antolatzaera. "Ahal den heinean, edukietan sakontzen ere saiatzen gara. Batzuetan, adibidez, lana ekoizteaz edo zuzentzeaz arduratu den pertsona bat gonbidatu izan dugu, edo, bestela, aditu bat ere etorri izan da pelikulan jorratutako gaiari buruzko azalpenak ematera".

### Sostengu ekonomikoa

Gaur-gaurkoz, bazkideak eta udala dira elkartearen sostengu ekonomiko nagusia. Baina, aipatu dutenez, lehenengo urtean Kultur Elkarte arduratu zen Debadezineren jarduna aurrera eramateko eta mantentzeko beharrezkoak ziren gastuak ordaintzeaz. "Kultur Elkartearen babes moral eta ekonomikoa ezinbestekoa izan zen lehenbiziko hilabete haietan. Beraiek arduratzen ziren Umbrella lizentzia ordaintzeaz, adibidez. Gerora, bazkideen kuotei eta udalak emandako laguntzari esker, gastu horri aurre egiteko gaitasuna genuela iruditu zitzaigun".

Aipatutako dirulaguntzaren harira, pelikula mota jakin batzuk proiektatzeko hitzarmena sinatu dute udalarekin: "Euskarazko emanaldi batzuk antolatzeko eta hilabete zehatz batzuetan lantzen diren gaiari buruzko filmak eskaintzeko eskatzen digute, adibidez".


Bestalde, ezin dutenez elkartearen zinema eskaintzaren zabalkunderik egin, Whatsapp talde bat

sortu dute herritarrei programazioaren berri emateko, baina zerbitzu hori bazkideei bakarrik ematen diete. "Mezuak Whatsapp bidez jasotzeko zerbitzu horren truke 10 euroko kuota sinbolikoa kobratzen dugu; beraz, urte osoko bazkideza ia-ia zinemarako sarrera baten prezio berean ordaintzeko aukera dago. Argitu nahi dugu, nolana ere, kobratzen dugun kuota hori ez dela erabiltzen elkarte aberasteko; egiten ditugun jarduerak indartzeko baliatzen dugu dirua".

Elkarte "osasuntsu" egon arren, oraindik ere zinemarekiko zaletasuna hauspotzen jarraitzeko gogoz daudela aitortu dute. "250 bazkideko langa gainditzeaz gaude; 238 bat izango gara orain, baina gehiago izatea gustatuko litzaiguke. Izena emateko, nahikoa da igandetako saioetako batera agertzea".

**"Kultur Elkartearen babes moral eta ekonomikoa ezinbestekoa izan zen lehenbiziko hilabete haietan. Beraiek arduratzen ziren Umbrella lizentzia ordaintzeaz, adibidez"**

# 'Berriketn.eus' atariko komunitatearen parte izateko gonbidapen irekia



Debako eta Itziarko edozein eragilek eta taldek, baita erakunde ofizialek ere, *Berriketn* komunikabidearen webgunean txoko propioa izateko aukera izango dute aurrerantzean.

Komunitatea *Berriketn.eus* ataria erabiltzen duten guztiena da: kazetariak, erabiltzaileak, zutabegileak, kolaboratzaileak... eta, oraingoan, taldeentzako gonbidapena zabaldu du *Berriketn*-ek, Debarekin eta Itziarrekin lotura duten kolektiboek espazio libre eta doakoa eskainiz, "denon artean tokiko euskarazko komunitate anitz eta indartsu bat sortzeko helburuarekin".

Elkarte kulturelek, kirol klubek, gizarte mugimenduek, aisialdi taldeek, plataformek, alderdi politikoek... guztiek gune propioa edukitzeko aukera izango dute aurrerantzean, beren informazioa, argazkiak, bideoak... argitaratzeko.

Albiste guztiak taldearen Komunitateko "blog" pertsonalean agertuko dira, baita webguneko portadako Komunitate blokean ere, argitaratzen diren heinean.

Albisteok *Berriketn.eus*-en orri nagusira ere igo daitezke, baina aldizkariko erredakzioak bakarrik hartuko du erabaki hori, kazetarien irizpideen arabera (albistearen berehalakotasuna, herri mailan duen garrantzia eta orokorrean edukien oreka zaintze aldera).

## Bidali mezua aldizkarira

Komunitateko kide izan nahi dutenek mezu bat bidali beharko dute *berriketn@berriketn.eus*-era, hurrengo datuekin: taldearen edo elkartearen izena, deskribapen laburra, logotipoa eta helbide elektronikoa. *Berriketn* arduratuko da kontua sortzeaz eta profil horri baimen bereziak emateaz. Gero, sarbide-datuak (erabiltzailea eta pasahitz bat) bidaliko ditu bueltan, mezu berari erantzunda.

Erredakzioko kideek nabarmendu bezala, *Berriketn.eus*-ek debar eta itziartar guztiontzako euskarazko komunikazio tresna izatea du helburu. "Animatu eta zatoz zu ere gure Komunitatera, Debako eta Itziarko plaza digitalera!"

## Abian da Euskara Plana garatzeko prozesua

Hurrengo hamar urteetarako oinarriak ezarriko dituen euskararen plan estrategikoa diseinatzeko parte hartze prozesuari ekin dio Debako Udalak. Planaren edukia osatzeko, hiru lantalde sortu dira: transmisio-sozializazio taldea, merkataritza taldea, eta sentsibilizazio taldea. Eta lantalde bakoitzak hiru saio egingo ditu maiatza bitartean (bederatzi bilera izango dira guztira).

Martxoaren erdialdean hasi dira lanean. Interneten ikus daitezke bileren egutegia ([labur.eus/euskaraplana](http://labur.eus/euskaraplana) estekan).

## Debako eta Itziarko 52 etxetara iritsiko dira Errigoraren produktuak

Azken urteetako bide beretik, aurren ere harrera ona izan du debarren eta itziartarren artean *Eskutik Eskura* udaberriko kanpainak. 52 eskaera egin dira, produktuen truke 12.137 euroko ekarpena eginez Errigorari.

Martxoaren 13an amaitu zen Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoak, arroza, pasta, lekaleak eta fruitu lehorrak eskatzeko epea, eta produktuak Deban jasotzeko aukera izango dute Zuhatza elkarteak bazkideek. Banaketa maiatzaren 15ean egingo da, Aldats pilotalekuan (11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara).



# Sinadura bilketa abiatuko dute, "liburutegiko arautegia eskakizun berrietara egokitze" eskatuz



Apirilaren 11tik aurrera sinadurak batzen hasiko direla iragarri dute Liburutegia Denontzat Taldeko kideek. Udal liburutegiko araudia berrikustea eta orain arte egin dituzten proposamenak aintzat hartzea eskatzen dihardute hilabeteotan, eta taldearen eskaerak "babes zabala duela erakusteko" hasiko dira sinadurak eskatzen.

Aipatu dute otsailaren 8an ordezkari politikoeekin eta liburutegiko teknikariarekin bildu zirela, eta otsailaren 20an Herriartasun Batzordean aztertu zutela gaia, "baina gaur-gaurkoz ez da aldaketarik egin arautegian".

Nabarmendu dutenez, "denon liburutegia sortzeko bidea hasi nahi dugu, proposamen eta behar berrietara

egokitutako liburutegia. Haur, gazte, heldu eta adinekoen beharrak aintzat hartzen dituen liburutegia. Erabiltzaileok liburutegia behar dugun bezala behar ditu liburutegiak erabiltzaileak".

Erabiltzaile horien artean daude umeak eta haien zaintzaileak, baina kezu dira arautegiak "hainbat muga" ezartzen dituelako. "2 urtetik beherako umeak ezin dira haur liburutegian egon; umea besoetan, motxilan edo karroan duen erabiltzaile heldua ezin da helduen liburutegian egon; 2-6 urte bitarteko haurrek ordutegi mugatua dute (16:30etik 17:30era); eta adin desberdinetako anai-arrebak ezin dira elkarrekin egon liburutegian adin tarte bakoitzari ezarritako ordutegia dela eta. Horregatik eskatzen dugu arautegia eskakizun berrietara egokitzea; liburutegiaren hobekuntza proposatzen dugu, bada".

Hiru eskaera egingo dituzte sinaduren bitartez: "0-2 arteko umeek liburutegian egoteko aukera izatea (erabiltzaile izatea); umeek beste erabiltzaileen ordutegi berdina izatea; eta umeak eramateko kotxeei dagokienean malgutasuna izatea liburutegira sartzeko garaian (pilaketarik ez badago, edota premiazkoak diren egoeretan — umea oraindik bere kabuz ez dabilenean, umea kotxean lo badago — umeen karroak sartzeko izatea)".

## Lauzpa5 Stand Up bakarrizketa saioak, apirilaren 12an, Kultur Elkarte

Umorezko bakarrizketak izango dira protagonista Kultur Elkarteak apirilera antolatu duen emanaldian. Lauzpa5 Stand Up proiektu berria aurkeztuko dute bost umoregile gaztek, beste hainbeste bakarrizketa

eginez. Maria Blanco, Mikel Irazusta, Iker Plazaola, Julen Portillo eta Maialen Sorzabalbere igoko dira agertokira eta ordubete inguruko saioa egingo dute, euskaraz, jendaurrean. 20:00etan hasiko da ikuskizuna.

Sarrerak Internet bidez eros daitezke jadanik, bost euroan, [labur.eus/debalauzpa5](http://labur.eus/debalauzpa5) estekan. Sarrerak aurrez agortzen ez badira, emanaldiaren egunean bertan ere izango dira salgai Kultur Elkarte.

**ITURLAN, S.L.**

Iturgintza - Berogailuak

---

Mogel kalea, 1 - Behea  
 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
 Tfno.-Fax: 943 192 553  
 fontaneriaiturlan@iturlan.com





**A. Esnaola**  
**P. Echeverria**

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR  
 943 20 72 17 - 660 422 808  
 @pyadent

# “Sukaldean oso eroso sentitu izan naiz beti; barru-barruan daramadan zerbait da”

TASIO FERNANDEZ-QUEJO ALTZIBAR • Sukaldaria



Ostalaritzari estuki lotutako familia batetik dator Tasio Fernandez-Quejo Altzibar (Itziar, 1995). Bere familiak 1881. urtetik zuzentzen du Itziarko Salegi jatetxea eta bera da seigarren belaunaldiaren ordezkaria. Sukalde giroan hazi eta hezitakoa baldin bada ere, umetan ez zitzaion burutik pasa ere egiten sukaldari izan zitekeenik; gaur egun, ordea, zoriontsu da etxeko jatetxeko lapiko, zartagin eta plater artean.

**S**ukaldaritzarekiko grina nerabezaroan piztu zitzaion itziartarrari, eta ordutik ez du atsedunik hartu. 15 urte besterik ez zituela hasi zen sukaldari-laguntzaile lanetan, eta etxean jasotakoa Basque Culinary Centerren ikasitakoarekin eta munduan barrena egindako bidaietan bizitakoarekin aberastu eta osatu du. Azpimarratu duenez, bere ogibidean egunero ikasten da zerbait. "Zenbat eta leku, kultura eta sukalde gehiagotan lan egin, orduan eta gogo handiagoarekin jarduten dut sukaldean".

## **Sukaldari zaitugu, Tasio. Umetatik garbi zenuen horretan lan egin nahi zenuela?**

Umetan, egia esan, lanbide asko pasatu zitzaizkidan burutik, ume guztiei bezala, baina sekula ez nuen pentsatu sukaldaria izango nintzenik. Nahi genuena ikasteko esaten ziguten etxean, baina, ahal izanez gero, sektore honi ez ekiteko ere esaten ziguten, denbora libre gehiago izateko.

## **Eta noiz hartu zenuen sukaldari izateko erabakia?**

Gazte denboretan tontakeria asko egiten nituen, eta halako batean aitak zigortu egin ninduen, aspaldi

garbitu gabe zeuden sukaldeko txoko guztiak garbitzera behartuz. 14 urte nituen, eta hor hasi zen guztia. Beste behin ere, harrikoa egiten jarri ninduen, zigor gisa... Eta, ez pentsa, horretan aritu nintzen bolada batean, kobratu gabe, noski! (*kar-kar-kar*). Zigor haiei esker, sukalde giroan sartzen hasi nintzen. Pixkanaka, giroa gustatzen hasi zitzaidan, eta handik pare bat urtera sukaldaritza ikastea erabaki nuen.

## **Gastronomiari garrantzi handia ematen dion familia batekoa zara. Nola hartu zuten etxekoek sukaldari izan nahi zenuela esan zenienean?**

Hasieran ondo pentsatzeko esan zidaten, oso lanbide gogorra delako, eta hori esan zidaten batez ere lagunak kanpoan daudenean zuk barruan egon behar duzulako lanean. Baina, benetan gustatzen zitzaidala ikusi zutenean, guztiek animatu ninduten. Azken finean, gustura hartu zuten notizia, lanbide gogorra izan arren, gustatuz gero, polita ere badelako.

## **Zer nolako eragina izan du familia horretan jaio izanak zure ibilbidean?**

Sentsazio arraroa da, baina, egia esan, sukaldean oso eroso sentitu izan naiz beti, barru-barruan daramadan





zerbait da. Txikitan, gurasoak lanean zebiltzan bitartean, jatetxetik bueltaka ibiltzen ginen beti. Eskolatik bueltan ere, adibidez, sukaldetik pasatzen ginen bazkaltzera edo gurasoei bisita egitera.

**Eta zer da sukaldaritzatik gehien gustatzen zaizuna?**

Aniztasuna; ez da sekula amaitzen. Hori da lanbide honek daukan gauzarik onena.

**Sakrifizio handia eskatzen duen ogibidea da. Benetako bokazioa izan behar al da sukaldari gisa jarduteko?**

Egia esan, lana bera ez zait batere gogorra iruditzen, gustura joaten naiz lanera. Baina jendeak jai duenean zuk barruan egon behar duzu, eta hori da gauzarik gogorrena lanbide honetan. Hamalau urte daramatzat asteburuetan lanean eta, oraindik ere, inbidia sentitzen dut lagunek planak dituzten bakoitzean. Lanbide honetako gauza gehienetara ohitu naiz; ez, ordea, horretara.

**Gaur egun, sukaldaritzatik ikasteko hainbat eskola daude.**

**Zure kasuan, Basque Culinary Centerren trebatu zinen.**

**Nolakoa izan zen esperientzia hori?**

Ikastea erabaki nuenean, erdi mailako ziklo azkar bat egitea nuen buruan, lanean lehenbailehen hasteko. Baina amak Basque Culinary Centerren ikastera

**“Hamalau urte daramatzat asteburuetan lanean eta, oraindik ere, inbidia sentitzen dut lagunek planak dituzten bakoitzean”**

derrigortu ninduen, sukaldari ona izan nahi banuen eskolarik onenera joan behar nuela esanez. Egia esan, behin ikasten hasi nintzenean, ez nuen zalantzarik izan; dudarik gabe, hura zen nire lekua.

**Zein alorretan espezializatu zinen titulua lortzeko?**

Nirea sukaldaritzatik da eta, gaur egun erabiltzen diren teknika guztiak ikasi ahal izateko, abangoardiaren alorrean espezializatzea erabaki nuen.

**Italian, Australian edota Perun ere ibilia zara.**

**Esperientzia horiek zenbateraino lagundu dute zure maila hobetzen?**

Esperientzia horietan murgildu nintzenean ez



**“Sariak eskuratzea eskertzekoa da beti, baina, nire ustez, jendea zure etxera gustura itzultzea da saririk onena”**

**“Sukaldari on bat izateko ezinbestekoa iruditzen zait egiten duzuna maitatzea eta betiere ikasten jarraitzea”**

nuen imajinatu ere egiten hainbeste ikasiko nuenik. Sukaldaritzia gradua egiteaz gain, leku ezberdinetan ibiltzeko eta, aurrez ezagutzen nuenaz gain, beste sukalde batzuetan aritzeko aukera ere izan dut. Egia esan, asko disfrutatzen dut gauza berriak ikasten; izan ere, zenbat eta kozinatzeko modu gehiago ezagutu, orduan eta zapore eta plater berri gehiago sortzeko gai naiz.

**Eta, aurrera begira, beste zerbait ikasi nahiko zenuke?** Zalantzarik gabe, ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake, hau guztia ez baita inoiz bukatzen. Gehiago ikasiz gero, ikuspuntua zabalagoa da, eta, zenbat eta maisu gehiagorekin lana egin, orduan eta argiago ikusten dut nolakoa izan nahi dudana (eta nolakoa ez) etorkizun batean.

**Sariren bat ere eskuratu duzu dagoeneko, ezta?**

Bai. Sariak oso ondo daude, batez ere jendeak zuzan jartzen duelako arreta eta horrek, gainera, bezero gehiago erakartzen laguntzen du. Sariak eskuratzea eskertzekoa da beti, baina, nire ustez, jendea zure etxera gustura itzultzea da saririk onena. Horri esker, langileak, jabeak eta, nola ez, bezeroak ere irteten dira irabazten.

**Eta zer behar da sariak lortzeko eta sukaldari ona izateko?**

Sukaldari on bat izateko ezinbestekoa iruditzen zait

egiten duzuna maitatzea eta betiere ikasten jarraitzea. Sarien mundua, aldiz, beste zerbait bihurtu da gaur egun.

**Zer zentzutan diozu hori?**

Nire ustez, ez du zerikusirik sukaldari ona izatearekin. Protagonistaren izaerak indar handia hartu du mundu honetan eta, kasu zehatz batzuetan, jendea ezagutzeak pisu handiagoa duela iruditzen zait.

**Itzul gaitzen zure gaur egungo jardunera. Nolakoa da zure sukaldaritzia? Nola laburbilduko zenuke?**

Betiko erretegi tradizionala da Salegi. Asko kozinatzen dugu eta, besteak beste, Euskal Herriko zein Espainiako oinarritzko plater gehienak prestatzen ditugu. Gurean, oro har, produktua, parrilla... lehenesten dira, eta aurrerantzean ere esentzia horri eustea gustatuko litzaidake. Hala ere, bezeroek gauza berriak dastatzea ere gustuko dut.

**Hortaz, tradizioa eta berrikuntza uztartzen dituzu?**

Bezeroari plater desberdin batzuk probatzera ematen saiatzen naiz, betiere gure nortasuna agerian utziz. Gainera, bazkaria erreboilo edo txuleta on batekin bukatu aurretik, denboraldiko lehengaiak aprobetxatzea ere gustatzen zait.

**Eta ba al duzu plater edo osagai kutunik?**

Denetarik egitea eta prestatzea gustatzen zait; gauza



askorekin disfrutatzen dut. Baina aitortu behar dut nire gustuko plateren kontua boladaka izaten dela.

#### **Nolatan?**

Produktu edo plater batekin denboratxo bat daramadanean, nazkatu egiten naiz. Eta, kasu horretan, beste bat prestatzea izaten da gakoa.

#### **Familiaren jatetxean ari zara lanean. Nola daramazu?**

Ez da erraza, baina familiaren negozioan lan egiteak bere abantailak ere baditu.

#### **Nola hartu zaituzte lantaldean?**

Bada, gainerako lanpostuetan bezala, familiaren negozioan ere taldearen errespetua irabazi behar da egunero.

#### **Sukaldaritz oso errotuta dago gure kulturen, baina platerak gero eta "modernoagoak" dira. Hainbeste berrikuntza eta abangoardiaren artean, non geratzen da gastronomia tradizionala?**

Gauregun, gero eta teknika gehiago daude sukaldaritzan, baina iruditzen zait teknika abangoardistek ez dutela zentzurik oinarritzko teknika tradizionalik gabe. Nire ustez, oso interesgarria da sukaldaritz ahal den guztia ezagutzea, horri esker errazagoa baita une bakoitzean erabili beharreko teknika aukeratzea. Are gehiago, plater batean teknika berriak edo ezberdinak erabili arren, esentzia tradizionala igartzea gustatzen zait,

betiere produktua ahalik eta gehien errespetatuz eta gure nortasuna mantenduz.

#### **Sare sozialei eta telebistari esker, azken urteotan asko hedatu da kultura gastronomikoa. Zure ustez, jendeak gehiago daki orain sukaldaritzari buruz? Bezeroa zorrotzagoa al da gaur egun?**

Bai, noski. Gaur egun, jendeak sukaldaritzarekiko interes handiagoa erakusten duela uste dut, eta hori gustatzen zait. Era berean, jendeak zer jaten duen jakitea ere gustatzen zait. Eta plater bati zerbait falta zaionean, edo bezeroari ez zaionean gustatzen, kritikak jasotzea ere atsegin dut, platera hobetu ahal izateko; bestela, ezinezkoa izango baita hura hobetzea. Dena dela, gaur egun bizi dugun sukaldaritzaren *boom* honek kontrako alde bat ere badu, nire ustez.

#### **Zein?**

Esango nuke telebistako *MasterChef* saioko epaileak gero eta gehiago direla gure artean.

#### **Zer proiektu dituzu esku artean aurrera begira? Betetzeko ametsik ba al duzu oraindik?**

Ikasten jarraitu nahiko nuke, beti. Bestalde, amets asko ditut buruan, eta ikusiko dugu etorkizunak zer dakarren. Dena den, Salegi jatetxeari, gure familiaren etxeari, gogor eustea da oraingoz argi daukadan amets edo helburu bakarra.



## Zaintza Ekosistema garatzeko lehen urratsa eman du udalak

Bizi-itxaropena gero eta handiagoa den garaiotan, instituzioetara ere iritsi da zaintzari buruzko kezka. Hala, Euskal Herriko beste zenbait herritan bezala, Deban ere adinekoei zuzendutako Zaintza Ekosistema proiektu berritzailea garatzeari ekin dio udalak. "Deba Euskadiko herri zaharkituenetako bat izanda, proiektu honen helburua da adinekoen beharrei modu integralean heltzea eta erantzutea, premiazko lehentasuna izatea. Zaintza Ekosistemaren sorrerarekin, Deba zaintzen abangoardian izango da", azaldu dute udal iturriek.

Zaintza-zerbitzuen beharrak ekarritako erronkei erantzuna emango dien proiektua ezartzeko bidean, hasiak dira lehen urratsak ematen. Horretarako, herriko hainbat sektoretako ordezkariak osatutako talde eragilea sortzea sustatu du udalak. "Prozesuaren eraginkortasuna bermatzeko" helburuarekin, gainera, Matia Institutuak gidatuko du talde eragilea.

### Zortzi lan saiotan

Prozesua lan saiotan oinarrituko da, eta bertan, talde eragilea ez ezik, proiektuaren estrategia orokorraz arduratuko den koordinazio talde bat ere izango da. "Taldea hamazazpi lagun inguruk osatuko dute, eta guztira zortzi saio egingo dira, hamar bat hilabetean".

Talde eragile horrek zaintzei buruz hausnartzea izango du xede eta, prozesuak iraun bitartean, beste talde tematiko batzuk sortzeko aukera ere izango dela azaldu dute. Bilerak antolatuko dira bigarren talde batekin, talde koordinatzailearekin, eta haren ardura izango da "proiektuaren estrategia orokorra definitzea eta gainbegiratzea".



## Martxoan ere askotariko ekintzak antolatu ditu Arbilek

Zuzendaritza batzorde berria eratu zenetik, etenik gabe lanean dihardute Arbil Elkarte Sozialean. Hilero bezala, martxoan ere hainbat ekintza antolatu dituzte. Martxoaren 7an, adibidez, ibilaldia egin zuten Soraluzetik Bergarara. Hilaren 13an, erretiroari eta pentsioei buruz hausnartzeko mahai-ingurua antolatu zuten eta "primeran" joan zela esan dute, 85 bat lagun bildu baitzituen Eduardo Garcianen eta Pako Salegiren solasaldiak. Martxoaren 21ean, aldiz, Gasteizko hirigune historikoa, Santa Maria katedrala edota Fournier Karta Museoa ezagutzeko irteera egin zuten.

Apirilean ere hainbat ekintza egingo dituzte: ibilaldia Saturraranetik Berriatuara (hilaren 11n), minbiziari eta Nagusilani buruzko hitzaldiak (hilaren 17an eta 23an, hurrenez hurren) eta Kantabriara irteera (hilaren 25ean).

## Apirilaren 5ean abiatuko da hauteskunde kanpaina

Apirilaren 21ean izango diren hauteskundeak deitzeko dekretua sinatu eta hura EAEko aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, martxan da Eusko Legebiltzarrerako bozak prestatzeko makineria. Iragarri dutenez, apirilaren 5eko gauerdian hasi eta apirilaren 19an amaituko da kanpaina ofizialki.

Egutegi horren barruan, besteren artean, posta bidez botoa emateko datak ere ezarri dituzte. Aukera hori baliatu nahi duten herritarrek apirilaren 11ra arte (egun hori barne) eska dezakete hautesle erroldan inskribatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria; gogorazi dutenez, ziurtagiri hori "ezinbesteko baldintzetako bat" izango da boto eskubidea gauzatzeko. Botoa hauteskunde mahaira bidaltzeko epea, berriz, apirilaren 1ean zabaldu eta apirilaren 17an itxiko dute.

# Ozen entzun ziren aldarri feministak Debako eta Itziarko kaleetan Emakumeen Nazioarteko Egunean



Mobilizazioak, protestak, kultur jarduera bereziak... askotariko ekintzak egin zituzten Deban eta Itziarren martxoaren 8an, eta ondorengo egunetan ere bai, aurtengo egitaraua hilaren 19ra arte luzatu baita.

Emakumeen Nazioarteko Egunean bertan, adibidez, elkarretaratzea egin zuten eguerdian Debako Foruen Plazan eta, iluntzean, Deba-Itziarko Talde Feministak deitutako manifestazio jendetsuak hartu zituen udalerriko kaleak. Jarraian, Kanean Kantuzek musikaz girotu zuen eguna. Itziarren, berriz, *Gora*

*borroka feminista* lelopean manifestazioa egin zuten arratsaldean, batukada herrikoiak lagunduta. Eta, egun horretarako prestatutako manifestua irakurri ondoren, Andutz Dantza Taldearen saioa ere izan zen.

Gerora, hilaren 19ra bitartean, beste hainbat ekintza antolatu dituzte, hala nola umeentzako jinkana, Itziarko Erasoen Aurkako Taldearen aurkezpena, Goaz taldearen *Lotura basatiak* performancea, Debako Kontalarien ipuin kontaketa berezia, Nerea Arriolaren *Asterisiko* bakarrizketa edo *Cuidando a quienes cuidan* hitzaldia.

## Bigarren talde handienaren saria jaso du Debako Gaztelekuak aurtengo Lilatoian

34. aldiz egin dute aurten Lilatoia, Emakumeen Nazioarteko Egunari begira Donostian antolatzen den lasterketa, eta beste behin ere parte hartzeak gorantz egin duela nabarmendu dute antolatzaileek: orotara 6.200 emakumek parte hartu zuten martxoaren 3an egindako proban. Tartean ziren Debako eta Itziarko korrikalariak ere, bertoko 120 emakume baino gehiago ibili baitziren lasterka.

Gainera, Debako Gaztelekuak protagonismo berezia izan zuen hitzorduan, bigarren talde handiena osatzea lortu baitu aurten. 119 emakumezko irten ziren korrika egitera herriko taldean, eta emozioz eta pozarren jaso zuten saria. "Garaikur bat eman ziguten, baina herri



Debako eta Itziarko korrikalariak Donostian. DEBAKO GAZTELEKUA

txiki batean hainbeste emakumek parte hartu izanak mila buelta ematen dizkio jasotako sari horri. Normala da biztanle gehiago dituzten hiri edo herri handietan talde handiak sortzea; horregatik da berezia sari hau, proportzioan suposatzen duen horregatik guztiagatik".

# Herria harro 23. Korrikan

Harro Herri lelopean, Irunen abiatu zen euskararen aldeko egitasmoa, martxoaren 14an, eta Baionan amaitu, hamar gau eta 11 egun geroago: martxoaren 24an, hain zuzen ere. Gurera hilaren 20an heldu zen lekukoa eta Debako eta Itziarko 31 eragilek erabili dute aurrez eskuz esku. 23. Korrikak eta lasterketa martxan jarri arteko Korrika Kulturalak udalerrian lagatako irudi batzuk jaso ditugu ondoko orrialdeotan.



Argazki gehiago  
[berriketan.eus](http://berriketan.eus) atarian





## 24 ARGAZKI GALERIA









A promotional graphic for Berriketan.eus. It features the text 'Berriketan.eus' in a white speech bubble, '23.korrika' below it, and the 'HARRO HERRI' logo. A QR code is located on the right side. The background is red with a pattern of white lines and shapes.

Berriketan.eus  
23.korrika  
Ikusi eta deskargatu 23. Korrikak  
lagatako irudiak [berriketan.eus](https://berriketan.eus) atarian.

# Martxo / Apirila

## MAR. 28 (OSTEGUNA)

### FUTBOLIN TXAPELKETA

17:00 Gaztelekua.

## MAR. 29 (OSTIRALA)

### BISITA GIDATUA

10:00 'Marearteko zabalgunea'. Errota Berri Landetxea, Sakoneta.

### ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal presoen esku-bideen alde. Foruen Plaza.

## MAR. 30 (LARUNBATA)

### BISITA GIDATUA

11:00 'Lastur familian'. San Nikolas plaza, Lastur.

## MAR. 31 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'Campeonex'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## API. 5 (OSTIRALA)

### PARETAK KOLOREZTATZEN

17:00 Gaztelekua.

## API. 7 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'Tár'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

### HEGAZTIAK BEHAZTEKO IRTEERA ANDUTZERA

09:00 Itziarko frontoitik. Izen-ematea: 695 78 36 56.

## API. 8 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## API. 10 (ASTEAZKENA)

### HITZALDIA

18:15 'Harreman osasuntsuak lagun artean' (Treba Gurasoak). Kultur Elkarte.

## API. 11 (OSTEGUNA)

### IRTEERA

Saturraran-Berriatua oinez. Arbil elkartearen eskutik.

### KONTZERTUA

14:00 Debako Udal Musika eta Dantza Eskola. Luzaro.

## API. 12 (OSTIRALA)

### UMOREZKO IKUSKIZUNA

20:00 KulturEkin: Lauzpa5. Kultur Elkarte (sarrerak: [labur.eus/debalauzpa5](http://labur.eus/debalauzpa5)).

## API. 14 (IGANDEA)

### LASTURKO TALO EGUNA

12:00 Egitarau berezia.

### ZINEMA

16:30 'Elfkinak'. Kultur Elkarte.

19:00 'El regreso de las golondrinas'. Kultur Elkarte.

## API. 21 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'Till'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## API. 22 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## API. 23 (ASTEARTEA)

### SARI BANAKETAK

12:00 IV. Ilustrazio eta ipuin lehiaketa. Udaletxea.

19:00 'Deba ehun hitzetan' sariketa. Ispiluen gela.

### HITZALDIA

18:00 'Ezagutu dezagun Nagusilan'. Arbil Elkarte Sozialaren eskutik.

## API. 26 (OSTIRALA)

### ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal presoen eskubideen alde. Foruen Plaza.

## API. 27 (LARUNBATA)

### LIBURUAREN EGUNA

11:00 Liburu azoka, bermut literarioa eta mikro irekia. Kultur Elkarte.

## API. 28 (IGANDEA)

### IPUIN KONTAKETA

17:00 Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

### ZINEMA

19:00 'Almas en pena de Inisherin'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

### IRTEERAK

Gaztelekua bi eguneko bi txango egingo ditu Askizura: **Apirilak 1-2**

10:30 (2009an jaiotakoekin). **Apirilak 3-4**  
10:30 (2008an jaiotakoekin).

### IKASTAROAK

#### KZgunea:

Aurrez aurrekoak eta urrunekoak. Ordutegia: apirilaren 1etik 15era, 16:00etatik 20:00etara.

### UDAL LIBURUTEGIA

#### Aste Santuko ordutegia:

**Martxoak 25-27:** ohiko ordutegian zabalik.  
**Apirilak 2-5:** goizez bakarrik irekita (helduen liburutegia: 09:00-14:00 / haur eta gazte liburutegia: 10:00-13:00).



### ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

**ZALDUEGI** Apirilak 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21.

**BURGEOA ZUAZO** Apirilak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.  
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

### DEBAKO BOTIKAK

**ZALDUEGI** 669 26 22 01  
**BURGEOA ZUAZO** 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

**BURGEOA ZUAZO**  
Martxoak 30 / Apirilak 6

**ZALDUEGI**  
Apirilak 13 eta 20

## Jarrai gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte



### HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

### IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekintzaren bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan apirilaren 15a baino lehen. [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) 943 19 13 83

### Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Landide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04

# Deba

Hortz klinika

Hondartzar Kalea, 20  
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com  
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

# Uzuri

optika audio

## PILARIK GABEKO AUDIFONOAK PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92

PPS: 183/12

www.aukera-inmobiliaria.com

Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**KENKEN DENBORA-PASA MATEMATIKOEA**

**KenKen jolasa** Tetsuya Miyamoto matematika irakasle japoniarrek asmatu zuen, burmuina trebatzeko tresna gisa. Ken hitzak "adimena" edo "buru-azkartasuna" esan nahi du japonieraz.

**Nola jolastu?**


Lauki-sarean 1etik 6ra bitarteko zenbaki guztiak kokatuko ditugu errenkada eta zutabe bakoitzean, bat ere errepikatu gabe. Gainera, lauki-sarea atal ezberdinetan banatua dago, eta horietako bakoitzean ikur matematiko bat (batuketa, kenketa...) eta zenbaki bat azaltzen dira. Zenbakizko balio hori, atalean dauden zenbakiekin eragiketa egitean lortzen den emaitza izan behar da.

2	1	3 <sub>-2</sub>	4	5	6
9	2	4 <sub>2x4</sub>	1 <sub>-3</sub>	3 <sub>8+</sub>	5 <sub>30x</sub>
5 <sub>60x</sub>	3	9	2	1	4
1	4	5 <sub>-1</sub>	6 <sub>12x</sub>	2	3 <sub>9+</sub>
3 <sub>3÷</sub>	9	2 <sub>12+</sub>	5	4 <sub>20x</sub>	1
4	5 <sub>20x</sub>	1	3 <sub>-3</sub>	6	2 <sub>9+</sub>

9+		3÷		20x	
	20x		12+		3÷
9+		12x	1-		
					60x
30x	8+	3-	24x		
			2-		

**HIZKI ZOPA: ZUHAITZ MOTAK**

A	S	T	I	G	A	R	R	A	E	J
H	L	A	U	R	K	I	A	E	B	H
M	G	S	S	G	N	A	A	M	L	E
A	R	T	E	A	R	U	E	M	I	Z
H	G	K	B	R	N	X	U	R	N	U
B	M	G	A	I	X	K	Z	B	A	E
S	D	Z	P	A	O	G	A	P	S	B
Z	I	A	Z	T	I	B	R	U	G	U
L	Z	A	Z	T	I	R	A	H	F	Z
J	E	B	A	M	A	K	A	L	A	A
T	H	U	R	R	I	T	Z	A	G	K



HARITZA | PAGOA | HURRITZA | GURBITZA  
 MAKALA | PINUA | ASTIGARRA | ARTEA  
 URKIA | LIZARRA

# Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,  
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

# ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27  
943 19 14 47  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# Calbeton



Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# ENGLISH SQUARE



SCHOOL  
OF ENGLISH

Uztailean  
First-Advanced  
intentsiboak  
eta txikienezako  
tailerrak

Sokagin kalea 12, DEBA  
648 268 206  
info@english-square.net

# RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

# k

kutxabank



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • inmolhome@gmail.com

# Berriketan .eus


parte hartu  
parte izan



# Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576  
20820 DEBA

# ENDAÑETA

muebles altzariak



Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria  
3000m<sup>2</sup>

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com  
www.mueblesendaneta.com

CONSERVAS  
**YURRITA**

1867

GASTRONOMIKA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN  
ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmentaren udaberriko ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera 09:00-14:30



Online salmenta:  
[www.yurritagastronomika.com](http://www.yurritagastronomika.com)



sarean edota dendan erosteagatik

**% 20ko deskontua**

kupoi hau aurkeztuz

**ZUZENeko SALMENTAN**

50€tik gorako erosketetan,  
urte amaierara arte erabilgarri

**ONLINE SALMENTAN**

50€tik gorako erosketetan  
ondorengo kupoia sartuz:

**BERRILAGUN**